

TURTZIOZKO ESKALADA TOPAKETAK

Txirrita

LEHEN topaketa 2003an izan zen. Egia esan, ez genuen ofizialki ezer antolatu. Ruben-en urtebetetzea aitzakia hartuta, eskalatzeko eta afaltzeko batu ginen lagun kuadrila bat. Hala ere, hurrengo urtean berriz batzekotan gelditu ginen.

2004ko topaketa apur bat ofizialagoa izan zen. Kartelak atera genituen, txapelketa antolatu, partehartzailen artean opariak zozketatzeko babesleak topatu, eguneko argazkien proiektzioa, kamisetak...

Urte horretan 50 lagun inguru batu ginen, giro ezin hobean: jende pilo horretan eskalatzen, lehiaketak ahaztu eta eskaladarekin gozatuz. Norbaitek irabazi behar eta Gorka Karapeto izan zen txapel-dun. Edizio horretan hasi ginen eguneko argazkien proiektzioa egiten. Egunean zehar argazkilariak eskalataileei argazkiak ateratzen ibili ziren, eta gauean afaldu ondoren ordenagailu eta proiektore baten laguntzarekin eguneko argazkiak erakutsi ziren.

Turtziozko eskalada txapelketa berezia da, ez baita errokodromoan egiten, benetakorokan baizik. Partehartzailak nahi dituzten bideak eskalatzen dituzte eta egindakoa apuntatzen dute. Bideek puntuazio ezberdina dute zailtasunaren eta kateatutako estiloaren arabera. Gero lau bide onenen puntuazioa batu eta puntu gehien dituenak irabazten du txapela. Txapel hori da irabazlearen sari bakarra. Modu honetan, txapelketa alai antolatzen dugu, epailarik gabe, estresik gabe, bakoitza bere mailan lehiatzen. Eta gainera, hemen irabaztea ez da garrantzitsua, ezta parte hartzea ere, hemen garrantzitsuena ondo pasatzea da.

2005ean salto kualitatiboa eman zen. Udaletxearen babesla lortu genuen eta horri esker askoz jende gehiago etorri zen. Topaketa asteburu osora zabaldu genuen, ostiralean bertan mendi-espedizio baten proiektzio batekin hasita. Aurreko urtean legez, eskalada txapelketa eta argazki lehiaketa antolatu ziren. Urte horretako txapel-duna Gotzon Maiz Azeptiarrak izan zen.

2006an aurreko urteko antzeko egitaraua antolatu genuen. Aipatzekoa da ostiraleko proiektzioa ematera Nicolas Favresse belgikarra etorri zela. Estatu osoan emandako proiektzio bakarra izan zen, izugarriko kalitatea zeukan aktibitatearen berriz: *Patagonia Dreams*. Topaketan ehun pertsona inguru bildu ginen eta gauean sari banaketa, zozketak eta izugarriko parranda izan ziren. Urte horretako irabazlea Geir Soderin suediarra izan zen.

Laugarren topaketa horren ondorengo hausnarketan, antolaketa-talde murrizta eta ematen duen lana ikusita, topaketa urtero ez egitea erabaki genuen, bi urterik behin baizik.



FOTO: J.U.

■ Inaki. 30 kutxako dorrea

2008a heldu da eta, urtebeteko atsedenaldiaren ondoren, topaketa antolatzeko ordua heldu zen. Bi berrikuntza egon dira urte honetan: Eskolako Gida eta Garagardo-kutxen dorre txapelketa. Gainerakoa aurreko urteetakoaren antzera gertatu da, hots, ostiraleko proiektzioa, larunbatean kamisetak eta krokis banaketa eta urteroko txapelketa; gauean afari herrikoia frontoian, sari banaketa, oparien zozketa eta garagardo-kutxen dorre lehiaketa. Aurtengo eskalada txapelketako irabazlea Zigor Arteaiga izan da, sekulako maila emanez. Horrez gain, Urko Nietok eginiko bideoa ere aipatu beharrezkoa da, internet-sarean ikusgai dagoena, www.vimeo.com/2124281 helbidean. Bertan Turtziozko 2008ko topaketaren gainbegiratu egiten da eta ikusgarria da Inakiren balentria: 30 garagardo-kutxako dorrea. Merezi du ikustea!

Bukatzeko, eskerrak ematea besterik ez zait geratzen. Luze joko luke eskertu

beharreko guztien izenak ipintzeak eta, baten bat ahazteko arriskua dagoenez, modu orokorrean egingo dut. Mila esker argazkilariei egindako lanagatik eta eskegita pasatutako orduengatik, ateratako irudiak hemen eta beste toki askotan ikusiko baititugu. Babesleei ere eskerrak, haiek gabe ez bailitzateke berdina izango, ezin-go baikenuke ilusioz beterik eta irrikaz egiten den opari zozketarik gauzatu. Marrazkilariei ere bai, beren lanik gabe ez bailitzateke ganorazko krokisik egongo eta galduta ibiliko baikinaten. Turtziozko udalari eta herritarrei, eman duten laguntza eta begirunea nola eskertu ez dakigularik, hori gabe ezinezkoa bailitzateke Topaketa hauek aurrera eramatea. Eta bukatzeko, eskerrak asko topaketetan parte hartu duzuen guztioi.

AGUR BAT ETA ESKALADA ONAK IZAN.